

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

ASTEKO GAIA


Dirulaguntzak UEUko ikastaroetarako /08

IRTEERA

Gutxitu fisiko eta psikikoak Degurixara /09

LEINTZ GATZAGA

Agur aurtengo udalekuei /10



**ANDRAMAIXETAKO EGITARAUA GERTU**  
EGUNOTAN BANATUKO DU KULTURA SAILAK

UDALEKU IREKIAK: BUKATU DIRA/4 • KIROLAK: LEINTZ BAILARAKO 66. TXIRRINDULARI LASTERKETA/6

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**UZTAILAREN 16TIK ABUZTUAREN 16RA**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. . . . . 943 79 21 99

**ABUZTUAREN 16TIK IRAILAREN 16RA**  
ITURRALDE, Mitarte 18. . . . . 943 79 27 22

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen . . . . .	943 71 49 07
ARETXAGAZETA . . . . .	943 79 86 21
Faxa . . . . .	943 77 18 54
Basotxo . . . . .	943 77 09 81
Euskaltegia . . . . .	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea . . . . .	943 71 18 62
Hezibide elkarte . . . . .	934 79 31 32
Industrialdea . . . . .	943 79 62 80
Institutua . . . . .	943 79 79 00
Kirol etxea . . . . .	943 71 26 28
Kultura etxea . . . . .	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola . . . . .	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI . . . . .	943 79 57 40
KZGunea . . . . .	943 79 94 44
Liburutegia . . . . .	943 71 18 62
Loramendi EE . . . . .	943 77 09 70
Ludoteka . . . . .	943 79 05 81
Mankomunitatea . . . . .	943 79 30 90
Murruxio ME . . . . .	943 79 93 74
Musika Eskola . . . . .	943 79 36 50
Osasun etxea . . . . .	943 71 19 59
Otalora . . . . .	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) . . . . .	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola . . . . .	943 77 03 77
Postetxea . . . . .	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea . . . . .	943 79 17 00
Taxi geltokia . . . . .	943 77 12 64
Udal Bulegoak . . . . .	943 71 18 62
Udaltzaingoa . . . . .	943 71 18 63
Urats Gain . . . . .	943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**  
Arrasate . . . . . 943 79 14 39

**LARRIALDIK**

SOS Deiak . . . . .	112
Eskualde Ospitalea . . . . .	943 03 53 00
Ertzaintza . . . . .	943 53 47 20
Gurutze Gorria . . . . .	943 76 55 76
Larrialdia . . . . .	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) . . . . .	943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:30  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN:**  
Abuztuan ez dute mezarik esango auzoetan.

**GOROETA**  
Domekan 11:30ean.

**ARKARAZO**  
Domekan 12:30ean.

**GALARTZA/IZURIETA/GELLAO**  
Ez dute mezarik esango.

**OHARRAK**

**ZINE EMANALDIK PLAZAN**  
Gaur, egubakoitza, hasiko da Kultura Saila filmak ematen herriko plazan. 22:30ean izango da, eta gaurko filma *Buscando a Nemo*. Hurrengo egubakoitzean, hilak 30, *Euskal Pilota* emango dute. Abuztuan, oster, lehenengo bi asteetan emango dituzte martitzen eta eguenetan.

**SANTIAGO JAIK GOROETAN**  
Aurreko astean hasitako jaiak aurrera jarraitzen dute. Bihar, zapatua, 16:30ean, umeendako jolasak egongo dira, eta 18:30ean txikiteoa. Domekan, Santiago eguna, meza nagusia esango dute 11:30ean, eta ostein, luntxa trikitilariak girotuta.

**LIBURUTEGIAREN ORDUTEGIA**  
Uztailaren 1etik irailaren 13ra bitartean udako ordutegia izango dute liburutegian: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan 10:00etatik 13:00etara; martitzen eta eguenetan 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Uztailaren 31tik abuztuaren 29ra, berriz, itxita egongo da.

**KZGUNEAREN ORDUTEGIA**  
Udako ordutegia izango du KZGuneak uztail osoan: 08:00etatik 16:00etara. Abuztuaren 2tik 31ra, oster, itxita egongo da.

**LORAMENDIRENAGENDA**

**ALGARA LUDOTEKAK HEZITZAILEA BEHAR DU**  
Algara ludotekak hezitzaile behar du irailtik aurrera lan egiteko. Curriculumak bidali Loramendi Era, Durana 11, 20.550 Aretxabaleta edo loramendi@topagunea.com.

**ABUZTUAN OPORRAK**  
Oporrak hartuko dituzte Loramendi EEko dinamizatzaileak abuztuan.

**ORAINDELA 10URTEARETXABALETAN**

**Bixente Etxeandia, UDAko presidente**

Bixente Etxeandia izendatu zuten bazkideek Aretxabaleta Kirol Elkarteko (UDA) presidente, 1994ko uztailan eginiko batzar orokorrean. Futbol jokalaria eta entrenatzailea izandakoak presidente kargua hartu zuen bi denboraldirako. Bada, 10 urtez ibili da, aurten utzi duen arte.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

“Adixo”

Agur, agurra.  
— Bai, adixo, gero arte.



GORKA ORTEGA

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**



**GURE GAUZAK S.A.**  
Ur Apalategi Idirin  
Utriusque Vasconiae, 2004  
288 orrialde

Julene Oihanburu idazle gazteari Gaston Berrizar idazle hil berriaren biografia idazteko beka ematen diotenean hasten da nobela, eta lana bukatzearekin amaitu. Elementu asko dituen nobela da; batetik misterioa, bestetik maitasun kontuak, baina baita euskal kultur munduari begirada kritikoa eta literaturaren inguruko zenbait hausnarketa ere. Pertsonaia, argitaletxe eta abarren izenak aldatuta egon arren askotan identifikatu egin daitezke. Fikzioaren bidez errealitatea erakusteko modu bikaina hautatu du Apalategik bere bigarren nobelan.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**Adi!**

**EKAINAREN 7tik AURRERA**  
**Zorion agurrak**  
**ASTELEHENEKO**  
**GOIENKARIAN!**

**Zorionak!**

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

**Gainera...**

**Zorion agurrak, SMS bidez!**


Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria-k** beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

**Errekabarren merkataritza etxea.**

Guztia bertan. Guztia Errekabarren kalean.




**MARI KARMEN**  
ZAPATA-KONPONKETA DENDA  
943 79 59 85



**IRUDI**  
ILE APAINDEGIA  
943 79 80 90



**LEINTZ-ROSI**  
MERTZERIA  
943 79 78 63



**ERREKABARREN**  
FRUTATEGIA  
943 79 96 43

**Lasai**

**Mirian Manteca masajista**

Lezamà Zentru Komertziala  
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
- Kraneala
- Estrukturala
- Funtzionala
- Lotura muskularrak

## ATREBENTZIAEZPADA/ Aurtengo Andramaixetan egongo zara? Ze gureko zeuke egotie jaixetan?



**ELENA MARTINEZ**  
Langillie



**MARIA JESUS SANCHEZ**  
Langillie



**MANOLI GONZALEZ**  
Langillie



**TOMAS ITURRIGASTILLO**  
Jubilae



**GORKA ETXABE**  
Langillie



**XABIER URZELAI**  
Langillie

Bai, lan kontuek diela beti egon izen gara, eta aurtan bai. Oin artekuen ez dot ezer faltan bota egitarauen, ondo dauela pentsetan dot, eta hemen gaketan garenondako nahikue dala, ez?

Ez dot uste, bueno egixe esateko ez dakit. Urte batzuetan egon izen naz, baiñe abuztu erdixen dienez beti ez. Ondo dazela pentsetan dot, iguel talde ezagunek ekarriko nittuzke.

Ez, oporretan egoten nazez kanpuen ibiltten naz, eta ez naz etorri izen. Hala eta be inportantie dala uste dot jentie egotie girue egon daixen. Jai desberdinek egiten saiatuko nintzake.

Ez, andrie donostiarra da eta hara gustetan jako fatie; badie 30 bat urte ez nazela egon. Dana dala, niri asko gustetan jat herriko jaixek eta hirugarren egunerako etorri izen naz batzuetan.

Bai, azken sei urtietan ez naz egon, baiñe aurtan bai. Diru gutxi gastau gure dotez, aurtengo jaixek egunez bizitteko asmue dauket; hala eta be ez dot eskaketan ezer berezirik.

Baietzien nau; gustau egi-tten jat herriko jaixek eta urtero egon izen naz. Hirugarren egunien txaranga gehixau jarriko nauke herrixe giroketako, batez be eguerdi inguruen.

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXALOAK EPEH ASTEAREN ANTOLATZAILEAK** Fin-fin ibili dira Euskal Presoak Euskal Herrira Astearen antolatzaileak, eta ekintza ugari antolatu dituzte: presoan egoera ezagutarazteko hitzaldiak, gazteendako kontzertua, mendi ibilaldia, herri bazkaria... Presoen egoera salatu eta herritarrek sensibiltzatzea zuten helburu antolatzaileak, eta horretarako egin duten ahalegina handia izan da. / M.A.

### ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

#### Andramaixak gertu

Gertu dauka aurtengo Andramaixetako egitaraua Kultura Sailak. Egunitan banatuko dute.

ASTEAN BEHIN /05

#### Bukatu dituzte Udaleku Irekiak

Hiru astean ibili dira herriko 200 ume eta gaztetxo Udaleku Irekietan, eta gaur bukatu dituzte.

KIROLAK /06

#### Txirrindulari lasterketa

Leintz bailarako 66. itzulua egingo dute Andramaixetan. Txirrindulari gazteek hartuko dute parte.

### ASTEKODATUA

# 54.207

#### EUROKO AURREKONTUA DUTE ANDRAMAIXEK

Kultura Sailak Jai batzordearen laguntzarekin antolatu ditu Andramaixak. 54.207 euro erabiliko dituzte aurtan, eta aurrekontu handien Djambutu Thoissane taldeak du, 5.244 euro.

### BESTEKEESANA

**“Ibarretxe Planera itzuliz, amaitutako zikloa gainditzeko gehiengo soziala bilduko duen proiektu**

**komuna izan nahi omen du. Eta hori behar dugu. Baina ezinbestean zuzendu beharreko hutsuneak ditu. Aurrealdintza guztiak ezabatu behar ditu, ETA zein estatuari beto eskubidea kenduz eta euskal herritarren hitza errespetatu dezaten exijituz.**

**Hala ere, ezin hobeto letozke ETArek eta Espainiako Gobernuaren distentsio keinuak eta, giza eskubideen defentsan, herritarrok zera exijitu behar diegu, ozen eta tinko: ETArek behin betiko su-etena, eta Gobernuari Alderdien Legea, Sumario errepresibo justifikatu ezin, euskal presoan dispertsio eta urrutiratzea eta Terrorismoaren aurkako Legea bertan behera uztea.**

**XABIER SARASUA**  
'Argia'/04-07-18

### HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



*Oporrak, jaixak...*

**B** adator urteko sasoirik desiratuenena!! Asko eta asko kalendariarekin begiratu egongo die oporretarako zenbat egun falta jakuen kontetan. Honezkerok beste batzuk barriz, eguzkipeien egongo die sandwichek

moduen buelta eta buelta emun eta azala kiskelketan. Beti esaten daue eguzkixue hartzie ez dala ona osasunendako, baine nunbait bati baino gehixauri ahaztu eiten jakue horreik aholkuok udie aillegetan dani. Aurtenguen, gainera, askon prebisinuek kale ein daue; uda hasieran ixildu barik ibili zien hamaika eguraldi aditu bero galantak ingo zituela esanaz, eta...

Urtero moduen, hamaika modutara pasauko dittugu oporrak, batzuk kanpoko lurraldiek bisitauaz eta beste batzuk bertako txoko politte hobeto ezautuaz. Aukera danak die onak eguneroko bizimoduaz ahazketako. Urte

erdixen deskantsue hartzeko momentu ezin hobie da, eta hori ondo aprobetxatu bihe da inddarrak barriztaute hasteko kurso barrixe.

Aspaldi sartu gitzen jaixen gupil zoruen, eta oin be horretan jarraitetan dou. Ondio udako planak ein

**“Ondio udako planak ein barik daukenendako aukera bat jaixen zirkuitue eitie izen leike”**

barik daukenendako aukera bat jaixen zirkuitue eitie izen leike. Hasi bateaz, eta hurrenguekin jarraitu holan dirue eta gogue gastau arte. Zoritxarrez askotan, dirue gogue baino lehenau

gastetan da, etabeste modu baten ase biher izeten da jai gosie.

Gure herriko jaixek be laster hasiko die, eta bertan egongo zarienok ahal danik eta onduen pasau deizuela. Urteroko polemikie izeten da Andramaixetan jente gutxi egoten dala eta jaixek ez diezela oso onak, ez dauela girorik... Dazenak dazela, jaixek aurrera ein biher daue. Herrixa jaixen garra!!!

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Mirari Altube

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



M. J. Aretxaga

## Oporrak ditudugu!!

Batzuk lehentxuau eta beste batzuk geruau baiñe gehixenok astiotan hartuko ditudugu oporrak. ARETXAGAZETAko lankidiek gaur hartu dittue, eta ez die bueltauko abuztue bukatu artien. Hori da suertie! Beste batzuk oporrak baiño lehenau bajie hartu daue, Arritxu Oliden alkatiek hain zuzen. Lelengo esku apurtu euen eta osatu barik eukela hankan min hartu... Ez dakit karguekin doien baiñe ezautu ditudan azken hiru alkatiek osasun arazuek euki dittue alkate zien artien. Andramaixetarako osatuko da et a hemen izengo dou txupinazue botateko.

Nik fan zan astien esan nutzuen zinie hasiko zala plazan eta atzeratu egin euien. Oinguen bai, gaur hasiko die pelikulak emuten beste ez ustekorik ez badau behintzet.

Egunotan da Kultura Saille Andramaixetako egitarau banaketako. Nik irakurri dot aurrerapena ARETXAGAZETA eta gauza barririk ez dot ikusi. Hala eta be, herri-tarrok jarri deigun girue, lehen be diru eta kopla gutxiaukin jai edarrak egitten zittuzten eta. Hortaz, ondo ibilli kanpora baldin bazoieze, hemen geraketan garenok zaindduko dou herrixen. Andramaixetan ez bada irailien ikusiko gara!

**JAIK/** Dantza eta doinu afrikarrak entzungo ditugu Djambutu Thoissane taldearen eskutik Andramari bigarrean

# Herriko jaietara etorri gura duenak gertu dauka aurtengo Andramaixetako egitaraua

MIRARI ALTUBE

Herriarrek oporrak hartu eta kanpora joan aurretik banatu izan du Kultura Sailak Andramaixetako egitaraua, eta aurten ere hala egingo du. Berrikuntza askorik ez dugu izango jaietan, baina jai giroa, umorea eta zer ikusia ez dira faltako abuztuaren 14tik 17ra.

Oraindik hiru aste falta dira herriko jaietarako, baina Kultura Sailak gertu dauka egitaraua. Jai batzordearen laguntza izan du ekitaldiak gertatzeko orduan, eta adin eta gustu guztiak kontuan izaten saiatu dira.

### TXUPINAZOA AURRERATUTA

Andramari bezperako ekitaldiek emango diete hasiera jaietara abuztuaren 14an. Aurten, baina, aurreratu egin dute Ikurrinari agurra eta txupinazoa eta 19:00etan izango dira, herriarrek mezetara joan aurretik. Gainerakoan, ez da aldaketarik egongo: mus txapelketa, umeendako parkea, buruhandi eta txistularien kalejira, dantzaldia eta bolo txapelketa gau partean. Inguruko herrietako rock taldeen kontzertuak ere egongo dira txosnetan.

### IKUSKIZUNAK ETA KIROLA

Andramari egunean udalbatza izango da protagonista eta txistulariek in meza nagusia entzutera joango da 12:00etan. Ondoren Chamuyo taldeak tango eta latindar dantzen erakustaldia egingo du. Arratsaldean, oster, T'ombligo antzerki talde nafarrak *Katxi-batxe de cucina* antzezlan aurkeztuko du kalean. 22:30ean, Xukan taldeak *Iturrian zer dago?* ikuskizuna eskainiko du plazan, eta ostean, Haitzama taldearekin dantzaldia izango da eta suzko erruberek botako dituzte.

Andramari bigarrean kirolak izango dira nagusi. 10:00etan, 66. Leintz bailarako txirrindulari lasterketa hasiko dute, eta 11:30ean, herriko pilotari gazteen partiduak egongo dira Iturrigorri frontoian. Gauean, oster, pilotari profesionalak hartuko diete leku-



ARTXIBOA

Gero eta herriar gehiago hurreratzen da herri bazkarira; iaz 500 lagunendako egin zuten paella eta justu-justu ailegatu zitzairen.

koa: Azpiroz-Saralegi aurrez aurre lau t'erdian, eta ondoren Olaizola eta Otxandorena Koka eta Zearraren aurka. Bai arratsalde, bai gaua girotzeko doinu eta dantza afrikarrak izango ditugu kalean Djambutu Thoissane taldearen eskutik.

### KOADRILEN EGUNA

Azken eguna koadrilek girotuko dute. Sokamuturra izango dugu urterto moduan goiz eta arratsalde; eta umeek Hankagorri taldearen *Munduko arrautzarik handiena* antzezlanarekin gozatzeko dute. 14:30ean paella egongo da

herriar guztiendako, eta ostean jolasak egingo dituzte: 16 urtetik beherakoek Kulki taldearekin eta gorakoek Gazte Ekimenarekin. Arratsalde txaranga eta buruhandiek girotuko dute, eta jaiak bukatzeko dantzaldia egongo da Iratxo taldearekin plazan.

## Dantza, bertsolaritza eta trikitixa

Xukan taldeak 2002an aurkeztu zuen *Iturrian zer dago?* ikuskizuna. Bost dantzarik, bi trikitilarik eta bi bertsolarik hartzen dute parte, eta Andramaixetan Iñaki Murua eta Alaitz Sarasola bertsolariak etorriko dira. Dantza, trikitixa eta bertsolaritza batzen dituen ikuskizuna da, eta hiru gaiak bakarka zein nahastuta azalduko dituzte. Betiko fandango eta arinarinarekin batera koreografia berriak eta erritmo ezagunak nahasten dituzte.

Antzinako labadero baten arropa garbitzen dabilzan ama-alabek eta baserri-tik feriara bidean muturra ondo berotuta ur tragoxa bat hartzea doazen aita-semeek egingo dute tril. Gizon-emakume horien arteko sedukzioa izango da gai nagusia eta bertsoen bitartez maitasun jolasei emango diete hasiera.

Andramari egunean, abuztuaren 15ean, izango da ikuskizuna herriko plazan, 22:30ean.



Herriko plaza z/g ARETXABALETA

KiXkur  
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala

Ile-luzatzeak

Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA



Aretz

taberna

Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

**UDALEKU IREKIAK /** Azken eguneko jaia eginda bukatu dituzte gaur arratsaldean

## Eguraldi eskasa baina giro ona izan dute umeeek Udaleku Irekietan

M.A.

Hiru aste egin dituzte herriko 211 neska-mutikok Udaleku Irekietan. Aurten eguraldi eskasa izan dute, baina horrek ez ditu kikildu eta inoiz baino irteera gehiago egin dituzte: Aozaratzara eta Galartzara gaua pasatzera, igerilekuetara... Gaur esan die agur.



Azken eguneko jaia egin dute gaur plazan Udaleku Irekiei agur esateko. Gustura ibili dira 211 neska-mutikoak, baita 30 begiraleak ere; izan ere, aparteko ezusteko barik bukatu dituzte.

### AURTEN EGURALDI ESKASA

Urtetik urtera aldaketa gutxi izaten dute Udaleku Irekiek, baina eguraldiak zeresan handia izaten du. Aurten, egun eskasak egokitu zaizkie, eta egunean zehar aldaketa handiak ere bai. "San Fermin egunean oso goiz txarra egin zigun, euria eta euria entziera egin behar genuenean, eta arratsalderako asko hobetu zuen", dio Larraitx Inurrategi ardura-dunak. Euskararen Egunean, ostera, aurkakoa gertatu zitzaizen: izugarrizko beroa egin zuen.

Hala ere, inoiz baino irteera gehiago egin dituzte aurten: Galartzara eta Aozaratzara gaua pasatzera, Landara egun pasa, Arrasate eta Eskoriatzako igerilekuetara eta txikienak, 3 urtekoak, Larrinora. "Irteerak batez ere nagusienek eskatzen dituzte, bestela aspertu egiten dira", dio Larraitxek.

3 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoak ibili dira Udalekuetan. Aurten, baina, kanpotik etorritako hiru ume izan dituzte lagun: Saharako bi eta Zamoratik etorritako beste bat. "Hizkuntzaz gain dena zen berria Saharatik etorritakoendako", dio Larraitxek, "baina poliki-poliki molda-

*"Irteerak egitea batez ere nagusienek eskatzen dute, bestela aspertu egiten dira"*

tzen joan dira eta ekintza guztietan hartu dute parte".

### 1987AN LEHENENGO UDALEKUAK

Orain dela 17 urte antolatu zituen lehenengo aldiz Kultura Sailak Udaleku Irekiak herrian. Ordu

*"Saharatik etorritakoak ere moldatu dira, eta ekintza guztietan hartu dute parte"*

arte, umeeek kanpora joan behar izaten zuten udako hilabeteetan. 1987az geroztik, herrian bertan ere oso ondo pasa zezaketela erakutsi zieten, eta geroztik, urte batetik bestera ume gehiagok ematen dute izena.

## LABUR

### Gaur, egubakoitza, hasiko da Kultura Saila ume zein nagusiendako filmak ematen plazan

Gaur, uztaileak 23, *Buscando a Nemo* filmarekin hasiko da Kultura Saila udako zine emanaldiarekin. Lehenago hasi gura zuen, baina herriko plazan dagoen eraikinean pantaila jartzeko Eusko Jaurlaritzaren baimena behar zuen, eta orain arte ez du jaso. Hurrengo egubakoitzean, hilak 30, *Euskal Pilota* filma emango dute euskaraz. Emanaldi guztiak 22:30ean izango dira.

Abuztuan, ostera, lehenengo bi asteetan bakarrik emango dituzte filmak, eta martitzen eta eguenetan izango dira: abuztuaren 2an, *Chihiroren bidaia*, euskaraz; 5ean, *Te doy mis ojos*; 10ean, *Master and Commander*; eta 12an, *El Cid, la leyenda*, umeendako filma euskaraz hau ere.

### Udalak egin duen animalien gaineko ordenantza irailetik aurrera abian egongo da

Animalien gaineko ordenantza egin zuen orain hilabete batzuk Udalak. Irailean, buletinean argitaratu ostean, jarriko du abian, eta animalien errolda egiten hasiko da. Herritarrek informazio guztia izan dezaten ordenantza jasotzen duen liburuxka banatuko dute etxez etxe. Hortaz, irailetik aurrera isunak jarriko dizkiete udaltzainek ordenantzako arauak betetzen ez dituzten animalien jabeek; txakur kaka lorategian uztea, esaterako, lege-hauste arina izango da, eta 41 eta 431 euro arteko zigorra jasoko du. Herri Antolamendu eta Segurtasuna Saileko arduradunek txakurren arazoa lehenbailehen bideratzea gura dute ordenantza horrekin.

### Mikel Barrenetxea aretxabaletar gazteak batxilergoko aparteko sari bi jaso ditu

Batxilergoa bukatu berri duen Mikel Barrenetxea aretxabaletarrak aparteko sari bi jaso ditu. Arizmendi ikastolako ikaslea izan da Mikel, eta batxilergoa bukatu ostean Euskal Herriko beste 200 ikaslerekin batera proba bat egin zuen ekainaren 19an. 18 lehenen artean geratu zen bera, eta horiek guztiek saria jasoko dute: datorren urteko udan hilabetez ingelesa ikastera atzerrira joateko aukera. Horrez gain, beste sari bat ere jaso du: batxilergoko nota eta proban ateratako notaren batez bestekoa 8,75 baino altuagoa duenez Mikelek, unibertsitateko ikasketak hasteko beka emango dio Eusko Jaurlaritzak.

### Osoko bilkura egingo du astelehenean, hiltegiaren gaineko erabakia hartzeko

Ezohiko osoko bilkura egingo du Aretxabaletako udalbatzak astelehenean, hilak 26. Esku artean izango duen gairik garrantzitsuenak Zubillagako hiltegia izango da. Udal bakoitzaren jarrera jakin gura du Mankomunitateak, eta horretarako osoko bilkura eginda hartu beharko zutela hiltegiaren gaineko erabakia udal adostu zuen. Uztailearen 28an, eguaztena, egingo du hurrengo Gobernu batzarra Mankomunitateak eta orduan erabakiko dute zer egin hiltegiarekin.



### Ekintza ugari egin dituzte euskal presoak gogoratzeko

EPEH Aretxabaletako plataformak euskal presoek egotera salatu eta herritarrek sentibilizatzeko astea antolatu zuen, eta antolatzaileak pozik daude izandako erantzunarekin. Manu Azkarate eta Enrike Letona preso ohien hitzaldira jende asko hurreratu zen, eta Never Surrender taldeak gazteak mugiarazi zituen. Kurtebarrira egindako irteerara 40 lagunetik gora joan zen, eta herri bazkarian ere jende multzoa elkartu zen. /M.A.



Iaz Andoni Aranagak irabazi zuen elite mailakoek eta 23 urtez azpikoek egindako txirrindulari lasterketa.

ARTXIBOA

## TXIRRINDULARITZA

## Leintz bailarako 66. itzulia egingo dute aurtengo Andramaixetan

1932an hasi ziren antolatzen lasterketa, eta gerra garaian izan ezik urtero egin dute

M.A.

Ibilbide luzea du gure herrian Andramaixetako txirrindulari lasterketak. 1932an hasi ziren antolatzen, eta 1936tik 1942ra bitartean izan ezik, urtero egin izan dute. Aurtengoa 66. itzulia izango da eta 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindulariak ibiliko dira.

Andramari bigarrenen, abuztuaren 16an, Leintz bailarako 66. itzulia egingo dute. 10:00etan aterako dira txirrindulariak Durana kaletik, eta bertan bukatuko dute 12:45 inguruan.

**DURANA KALEAN HASI ETA BUKATU**

Elite mailako eta 23 urtez azpiko txirrindulariek hartuko dute parte 66. itzulian. Durana kalean izango du lasterketak hasiera 10:00etan, eta helmuga ere bertan egongo da. Hainbat bira egin beharko dituzte bailaran eta Arla-

bango mendatea bi aldiz igoko dute. Lehenengoan, gainera, Legutioraino joango dira eta gero Kurtzetako mendatetik Aramaiora etorri. Guztira 120 kilometro izango dira, eta antolatzaileek 12:45 inguruan bukatuko dute. la lehenengoek aurreikusi dute.

**TXIRRINDULARI PROFESIONALAK**

Ibilbide luzea dauka Leintz bailarako itzulia Aretxabaletan. 1932an antolatu zuten lehenengo aldiz, eta Euskal Herriko itzulirik zaharrenetakoa izango da seguru asko. Gerra garaian,

1936tik 1942ra bitartean, ez zuten antolatu, baina gainerakoan urtero egin dute Andramaixetan, abuztuaren 16an hain zuzen. Txirrindulari oso onak hurreratzen ziren gainera, gurera, profesionalak gehienak, eta herritarrek bertatik bertara ezagutzeko aukera izaten zuten: Dalmacio Langarika, Francisco Exposito, Ruben Gorospe...

Ibarrean txirrindulari onak izan ditugu, eta Andramaixetako lasterketara hainbat aldiz etorri izan ziren: Jose Mari Goikoetxea 1960ko txapelduna eta Pedro Gueñetxea 1962koa biak eskoriatzarrak; eta Mikel Lizarralde 1981eko garailea eta Markel Irizar 2001ekoa biak oñatiarrak.

UDAko txirrindularitza sailak antolatzen du Andramaixetako lasterketa. Azken urteotan indar gutxirekin dabilta, baina aurrerantzean ere antolatzen jarraituko dutela diote. Hala izan dadila zaleek eskertuko diete.

*Txirrindulari oso onak hurreratzen ziren gurera, profesionalak gehienak*

## PILOTA

## Olaizolak eta Otxandorenak Koka eta Zezarraren aurka jokatu dute Andramaixetan

Aurten ere pilota partidu profesionalak izango ditugu Andramaixetan. Lau t'erdia barruan Azpirozek eta Saralegik neurtuko dituzte indarrak, eta horiek bukatutakoan Olaizolak eta Otxandorenak Koka eta Zezarraren aurka jokatu dute. Andramari bigarrenen, abuztuaren 16an, izango dira partiduak Iturrigorri frontoian, 22:30ean. Sarrera 10 euro ordaindu beharko da.

## KIROL ETXEA

## Uztailaren 31n itxiko ditu kirol etxeak atak eta irailaren 1a bitartean ez dute zabalduko

Udako oporrak direla eta itxita egongo da kirol etxea uztailaren 31tik irailaren 1a bitartean. Azken urteotan legez, abuztuaren Arrasateko kanpoko igerilekura joan ahal izango dira Aretxabaletako bazkideak. 2 urtetik gorako guztiei eskatuko diete txartela Arrasaten, hortaz, bazkide ez den norbaitek joateko interesa baldin badauka kirol etxetik pasa dadila argazki batekin bazkide egiteko.

## FOTOKIROLA



## Preferentea entrenamendu saioetan dabil

Uztailaren 12an hasi zen preferente mailako futbol taldea entrenamendu saioekin. Entrenatzaile berriak ditu, gainera: Neka Galan arrasatearra eta Xabier Zangitu bergararra. Jokalarien artean ere egon dira aldaketak. Lau ez dira egongo taldean: Alarcia, Kerman, Matalobos eta Alvaro. Horien ordean, beste hiru sartu dira: Haritz Igartua aretxabaletarra eta gazteen taldeetik igo diren Jon Iregi eta Imanol Rodriguez. /M.A.

# Expres



Santakurtz 16  
943 79 23 43

# Iber


★ Loteria ★  
✿ Paper denda ✿  
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

# Dorleta taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 94 15



## ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01

ERRETRATUZAHARRA

## Garai bateko Andramaixak, a ze jaixak!

**A**buzturako astebete falta zaigu, eta behin abuztuan sartuta segituan ditugu Andramaixak. Gero eta jende gutxiago egoten dela eta lehengo girorik ez dagoela sarri entzuten dugu kalean. Baina zelakoak ziren bada, lehengo Andramaixak?

Herriko jai nagusiak ziren, eta halaxe ospatzen zituzten aretxabaletarrek, giro ederrean eta prestakizun handiak eginda. Abuztuaren 15ean, Amabirjinaren egunean, hasi eta 17ra bitartean irauten zuten, eta inguruko herrietatik jende ugari etortzen zen. Asko gonbidatu gisa geratzen ziren, gainera. Orduan ohitura handia zuten inguruko herrietako jaietara joateko eta etxeak hutsik gelditzen ziren. Hori ikusita lapurrek etxeetan sartzeko aprobetxatzen zuten, eta jaietatik bueltan batek baino gehiagok hartu izaten zuen disgustua.

Andramari egunean meza nagusira joaten ziren herritar guztiak, dotore asko jantzita, gainera; gorbata aldean asko. Ondoren danbolina eta txistuarekin dantzari egiteko aukera izaten zuten,



eta bolo txapelketa, pilota partiduak eta bertsolariak egoten ziren. Gerra ostean, Mondragoeko banda etortzen zen meza ostea girotzera. Izan ere, jaietan musikak aparteko garrantzia zeukan, eta sokamuturra eta buruhandiak esaterako, geroago hasi ziren antolatzen. Jatekoari dagokionez, ez zegoen menu


berezirik: zopa, garbantzuak, aza, etxe-ko oilaskoa eta arroznea edo natilak.

Andramaixetako erretratu zahar hau 1950 ingurukoa izan daiteke. Zutik daudenak ezkerretik eskumara: Jose Antonio Leanizbarrutia, Benito Otxoa, Juanito Otxoa, ezezaguna seguru asko kanpotik etorritakoa eta Jose Luis

Biteri. Azken hau Bedarretako futbol zelaia egitera etorri zen Bilbotik.

Makurtuta daudenak: Felix Ugalde (?), Pablo Urkia *Litri*, Joakin Rodriguez eta Tomas Otxoa.

Argazkia: Luis Mari Otxoa



## Fino ile apaindegia

### Gizonezkoen ile apaindegi berria

Abuztuko lehenengo hamabostaldian zabalik

Ordutegia: 9:00etatik 13:00etara

Durana 19 • Aretxabaleta • Tel.: 666 26 48 86



# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko uztailaren 23a / 175. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Udalak hiltegiari buruzko erabakia hartzeko sei hilabete gehiago eskatu ditu

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Gizarte zerbitzuak izan zituzten mintzagai eguaztenean egindako ezohiko osoko bilkuran. Gainera, aste honetan hartu dute ibarreko herriek hiltegiari buruzko erabakia. Erabakia hartzeko epea sei hilabetez luzatzea eta bideragarritasun proiektu bat gura du Udalak.

Eguaztenean ezohiko osoko bilkura egin zuten Eskoriatzako udaletxean. Gizarte zerbitzuei dagokien dirulaguntzak arautzen hasi zen Udala; zenbait oinarri ezarri eta elkarteek dagokiena jasotzeko lehen urratsa eman dute. Orain arte, gutxi gorabehera talde horiek behar zuten dirua kalkulatu eta eman egin zaie. Gobernu kanpoko erakundeek ez dute jasotzen.

Bestalde, hiltegiari buruzko erabakia hartzeko sei hilabete gehiago eskatzea adostu zuten. Denbora horretan, bideragarritasun ikerketa egin dezatela eta azkenik, hiltegia itxiko balitz, sei hilabetez erabilgarri izatea gura dute.

### IRAILERAKO ZENBAIT LAN

Bestalde, irailean zehar zenbait lan jarriko dituela abian adierazi



Kiroldegian zenbait oztupo arkitektoniko konponduta dauden arren, oraindik hainbat lan egin behar ditu Udalak.

dute Udaletik: kanposantuaren horma zaharberritzea; kiroldegian oztupo arkitektonikoak kentzea; eta hiri-berritze planaren barruko zenbait lan txiki egitea.

### OHIKO OSOKO BILKURA EGUENEAN

Bestalde, datorren eguenean, ohiko osoko bilkura egingo dute udaletxearetoan 18:30etan. Gai zerrendaren barruan, haurtzain-

degi zerbitzua esleituko dute, eta Gellao eta Gorosarriko bide batzuk publikoak diren edo ez aztertuko dute uztailaren 29ko osoko bilkuran, besteak beste.

*Gizarte zerbitzuetan diharduten taldeei dirulaguntzak arautzea adostu du udalbatzak*

*Kanposantuko horma zaharberritzeko lanak hasiko dituzte irailean*

*Irailean arte Udalak ez du osoko bilkura gehiago egingo; azkena hilaren 29an izango da*



### Etchez etxeko gizarte zerbitzua kudeatzeko enpresa

Martitzenean bilera egingo dute udal ordezkariak etxeko zerbitzua eskaintzen dutenekin. Udalaren asmoa da gizarte zerbitzu hori arautzeko enpresa bat bultzatzea. Hala, Udalak lehiaketara aterako luke enpresa, eta haiek izango lukete kudeaketaren ardura. Mesedeetako Amaren egoitzari ere, interesgarri zaio Udaletik proposatutakoa. Horrela, ordezkatzeko lanetarako edo langileen bajak betetzeko, adibidez, langileak bilatuko lizkieke.

### LABUR

#### Dirulaguntzak UEUko ikastroetarako

Eskoriatzako Udalak iragarri duenez, aurten ere Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroren bat egin gura dutenei dirulaguntzak emango dizkie. Eskoriatzan erroldatutako herritarrei eta ikasle edo langabeei zuzendutako laguntza; pertsona bakoitzari matrikularen %50 ordainduko zaio. Ikasle edo langabe txartela, matrikularen ordainketa agiria eta ikastaroren bertaratze egiaztagiria aurkeztu behar dute interesatuek hilaren 30a baino lehen udaletxean.



## TELEFONO JAKINGARRIAK

<b>ESKORIATZA</b>	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

## BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaizaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

## OHARRAK

### ZINE EMANALDIAK

Gaur, egubakoitza, *Piratas del Caribe* filma pantailaratu dute herriko plazan. Astelehenean berriz, *Sucedio en Manhattan*; eta eguaztenean, *Las chicas del calendario* egongo da ikusgai. Uztaileko emanaldiekin amaitzeko, *American Pie*, *Menuda boda* ikusteko aukera egongo da hilaren 30ean. Emanaldi guztiak 22:15ean izango dira.

### UDALETXEAREN ORDUTEGIA

Eskoriatzako udaletxea 08:00etatik 15:00etara dago irekita udan zehar. Baina 10:00etatik 13:30era hartuko dute jendea.

## AXTROKIRENAGENDA

### LUDOTEKAKO ARDURADUNA

Tortolis ludotekan arduradun berria hasiko da lanean irailean. Ainitze Lucero eskoriatzarrak Olatz Arraseren tokia beteko du; 2001a ezkereratu da Olatz lan horretan.

## DUELA 32 URTE HASI ZIREN IRTEERAK ANTOLATZEN

# Eskoriatzako 30 lagun Degurixa aldera joango dira asteburu pasa

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Aurten ere Degurixa aldera joango dira gutxitu fisiko eta psikikoak. Eskoriatzatik 30 bat pertsona animatu dira asteburu pasa egitera. Joko mordoia antolatu dituzte bi egunetarako.**

Urbia aldera asteburu pasa joaten hasi ziren ibarreko gutxituak. Azken urteetan, berriz, Degurixan elkartzen dira Behar-Zana taldeak antolatutako egonaldian. Gainera, udaletxe, Foru Aldundi eta hanbat enpresa pribatuetatik dirulaguntza jasotzen dute. Horrez gain, egonaldian parte hartzen duen bakoitzak 25 euro ordaindu behar ditu.

Degurixara ez da ibarreko jendea bakarrik joaten. Eskoriatza, Arrasate, Aretxabaleta, Oñati, Bergara, Donostia, Legazpi, Zumaia, Lazkao eta Urretxutik ere animatzen da jendea.

### BEGIRALE UGARI

Irteeran begirale asko egongo dira; gutxitu kopuru adina. Hala ere, "inoiz ez da nahikoa. Lan asko



Geroz eta jende gehiago animatzen da Degurixara.

dago egiteko, bai eurak zaintzen, baita ekintzak antolatzen ere", adierazi digu Ixa begiraleak. "Horregatik animatu nahi dugu

jendea". Eskoriatzatik, aurreko urteetan baino begirale gehiago joango dira; izan ere, bost pertsona joango dira aurten lehenengoz.

## Domekan ospatuko dituzte Madalenak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Domekan ospatuko dituzte Marinen Madalena jaiak. Meza entzuteko eta luntx ederraz gozatzeko aukera izango dute etzi Eskoriatzako elizatera gerturatzen direnek.**

Hilaren 25ean, domeka, Madalena jaiak ospatuko dituzte Maringo auzotarrek, nahiz eta egun ofiziala uztailaren 22a izan.

Maringo ermitara gerturatu eta meza entzuteko aukera izango dute herritarrek eguerdi partean. Ondoren, luntxa egongo da bertaratzen diren guztientzako.

### JENDE ASKO MADALENETAN


"Madalena jaiak familiak batzeko aitzakia polita izaten dira", adierazi du Unai Salaberria auzo alkateak. Kanpoan bizi arren, Marinekin lotura duten lagunak bertara gerturatzen dira. Eguna elkarrekin igarotzeko ohitura dute, eta orokorrean, bazkari batekin ospatzen da eguna.

Hala bada, lagun ugari joango dela uste dute Maringo herritarrek. Jendea egongo delako, eguraldia aldeko izatea bakarrik espero dute antolatzaileek. Eta Madalenak ospatzera gerturatzen diren guztiei, ondo pasa deza-tela opa diete.



Jende asko gerturatzen denez, giro polita sortzen da Marinen.

BEIRALAN




KRISTALDEGIA

Markoztatze profesionala prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Markoztatzea



TOKI  
ALAI  
TABERNA

Karajiloetan  
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29  
ESKORIATZA

Villar  
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA

MENDIRA JOATEKO APROBETXATZEN DUTE ASKOK EGONALDIA

# Gatzagako inguruak erakarrita, abuztuan bisitari ugari etorriko omen da herrira

Z.V.M.

Mendi ibilaldiak, aspaldiko jauregiak eta Gatz Museoa dira, besteak beste, turistak Gatzagara erakartzen dituzten zenbait faktore. Herria ezagutarazteko aukera izaten da horrela opor garaian. Abuztuan ere jende ugari gerturatuko dela uste dute.

Nahiz eta jendeak abuztuko oporrrak kanpora joateko aprobetxatzen dituen, badago Gatzagara etortzen denik ere.

## BISITARIAK LASAITASUN BILA

Naturgune interesgarriak ditu Leintz Gatzagak. Bisitariak lasaitasun bila etortzen dira, besteak beste; mendiz inguratutako herria erakargarri zaie. Hala, mendi irteerak egiteko eta ibarreko txoko hau hobeto ezagutzeko parada izaten dute.

Herri barruko aberastasunez gain, inguruko paisaiatzeko aukera izanik, Turismo Bulegoak eskaintzen dituen txangoetan batek baimo gehiagok

hartzen dute parte. "Hiruerre-keta eta Isuskitza aldera irteerak antolatzen ditugu", adierazi du bulegoko Aitziberrek. "Hala ere, ezinbestekoa da aurrez deitzea".

Gainera, Aitzorrotzera edo Degurixa aldera joateko aukera eskaintzen du herriak. Edo atsedentokietan bazkaldu eta inguruak bisita daitezke. Oinez egin daitezke ibilaldiak, baina baita bizikletaz ere.

Arrazoi ugariengatik gerturatzen dira bisitariak Gatzagara. Aurrez aipatutako paisaiaren aberastasunaz gain, jendeak herriko kale eta jauregiak ezagutzeko parada du. Leintz Gatzaga XIV. mendean sortu zen, eta hiri-barrutian, Soran eta

Garro pizkundé eta barroko era-ko jauregi batzuk nabarmentzen dira.

Gatz Museora ere hurbiltzen da jendea. Askok eta askok egun pasa joandakoak izaten dira. Herriari aberastasuna eta ospea eman zion mineralari buruzko oinarritzko azalpenak ematen dizkiete bisitariak. Haur zein helduei zuzendutako ariketa interesgarrien bidez, gatzari buruzko kontu gehiago ikasteko aukera dute interesatuek.

Beraz, herri txikia izan arren, lasaitasun bila dabilen jendearentzako toki aproposa da Gatzaga; mendian ibili, eraikinak bisitatu edo museora irteerak eginez.

## LO EGITEKO TOKIAK

Gatzagan lo egiteko tokiak ere ez dira falta. Aterbe eta Gaztainuzketa dira bisitariak dituzten aukerak. Aterbe landetxeko Marianek, esaterako, uda sasoi-rako eskaera ugari dituztela adierazi digu. Irekita duten lehengo uda izateko, espero zuten jende kopurua baino gehiago gerturatuko da abuztuan herrira.

*Inguruak eta herriak berak dituen aberastasunak erakarrita datoz bisitari gehienak*



Inguru menditsuak ibilaldi ugari egiteko aukera ematen dio bisitariari.

ARTXIBOA

# Gaur esan diete agur aurtengo udalekuei

Z.V.M.

Eman diete amaiera aurtengo udalekuei. Gaur izan dute gaztetxoek azken eguna, eta balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Begiraleak ere oso pozik agertu dira, eta orokorrean, herriko gaztetxoak oso zintzoak izan direla nabarmendu gura izan dute.

Eguraldia lagun izan gura zuten iragan zapatuan udalekuetako gaztetxoek, eta baita euren gurasoek ere; kanpaldia egiteko asmoa zuten Dorleta inguruan.

Baina goizean eguraldia ez zen oso egonkor agertu. Horre-

gatik, Gureleko kideek bilera egin zuten zapatu arratsaldean, eta azkenean, kanpaldia egingo zutela erabaki zuten.

Dorletarantz abiatu ziren; bost kanpin-denda atondu eta itzulerarako dena prestatu ondoren, afaltzera joan ziren.

Hasiera batean Bengoerrekara joan behar zuten arren, eguraldiak bultzatuta iritzia aldatu zuten. Hala, elkarteko guraso baten txokora joan ziren afaria prestatu eta sabela betetzera.

"Oso ondo afaldu genuen; saiheskiak, txitxi-burruntziak eta hirugiharra hartu genituen, besteak beste", adierazi digute guraso elkartetik.

Gauerdian kanpalekura itzuli ziren. Sua egin zuten, eta haren inguruan eserita, abesten aritu ziren guraso eta gaztetxoak.

## EMAN DIETE AMAIERA UDALEKUEI


Baina datorren urtera arte agur esan diete udalekuei gaur, egubakoitza. Oso ondo ibili dira gaztetxo guztiak, "jolas eta jolas ibili gara-eta", azaldu dute.


Amaitu aurretik, baina, beste irteera bat egin zuten martitzenean. Gaztainuzketa aldera joan ziren udalekuetan aritu diren lagunak eta bertan pasatu zuten gaua. Martitzen arratsaldean lo-zaku mordoak ikus zitezkeen herriko kaleetan.



Martitzenean Gaztainuzketan pasatu zuten gaua Gatzagako gazteek.

Z.V.M.



**FAGOR** 

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, S. Coop.

Torrebasa 7  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa  
SPAIN  
Tel: +34 943 719 000  
Fax: +34 943 719 001




## Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

**943 79 86 21**



*Ondo ibili!*

**Aretxagazeta**  
Irailaren 3an, berriz zuekin

# ANDRAMAIXAK 2004

ABUZTUAK

14

15

16

17



Bai hasi bai bukatu Andramaixak ondo pasatu



Aretxabaletako Udala